

Nafarroan euskara sustatzeko diru kopurua %37 igoko da

Enaik 4.045.435 euroko aurrekontua izan den du, Nafarroako Gobernuaren aurreikuspenen arabera

ASIER AZPILIKUETA
Iruñea

Nafarroako Gobernuak aurkeztu duen aurrekontu proiektua bere hartan onartuko balitz, euskara garatzeko diru kontuak %36,77 handituko lirarteke heldu den urtean. Nafarroako Gobernuak dio igotera %66koa dela, baina kontua da hainbat tokitan barreiatuta zeuden funtzionarioak batuko dituela Euskararen Nafar Institutuak, eta, denera, langileen gastuak aurrekontu osoaren laurden bat baino gehiago direla. Beraz, BERRIAK eginiko kalkularen arabera, euskara bultzatzeko %36,77 gehiago gastatzea espero dute.

Euskararen garapenerako programak Enairen aurrekontuaren %59,52 hartzen du, hau da, 2.407.842 euro. 2007. urterako, programa beraren aurrekontua 1.760.470 eurokoa zen. Alegia, 647.372 euro gehiago gastatuko dute, antza, euskara garatzeko lanean. Diru sail zehatzagoetara joz, udaletako euskara zerbitzueta 120.000 euro gehiago gastatuko dituztela diote (550.000 euro denera); euskaltegietan 10.000 euro gehiago (510.000 denera); eta hedabideetan 12.000 gehiago (310.000 denera).

Bertze diru sail batzuen igoerarekin konparatuta, euskaltegien dako igoerak, adibidez, ez dirudi

■ Euskararen diruak Nafarroako Gobernuan

	2007an gastatuko dutena	2006ko aurrekontua	Aldea (%)
Langile gastuak	501.383	1.674.418	233,96
Gastu arruntak	137.460	364.481	165,15
Transferentzia arruntak	1.720.750	1.889.714	9,82
Benetako inbertsioak	69.000	116.822	69,31
DENETARA	2.428.593	4.045.435	66,58

ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA

sobera handia. Baina kontuan hartu behar da joera aldaketa nabarmena gertatuko dela orain. Izan ere, Pedro Pegenautek Nafarroako Gobernuaren hizkuntza politika gidatu zuen urteetan, diru sail horiek izoztu edo gutxitu zituzten urtetik urtera. Konparazio batera, 2000tik 2006ra %47 jaitzi zituzten euskara sustatzeko dirua.

IGOERA HANDIA LANGILE GASTUETAN.

Enaik heldu den urtean 4.045.435 euroko aurrekontua izan den du, Hezkuntza Departamentu osoaren %0,65. Lau milioi horiek konparatzen baditugu aurtengo aurrekontuak dituen 2.428.593 euroekin, badiudi sekulako igoera dagoela (%66koa, Gobernuaren azalpenetan). Baina kontua da lau milioi horietan sartu dituztela lehenago euskararen diruen artean sartzen ez zituzten hainbat langileen soldatak —funtzionarioei N-Pln euskara irakasten dieten irakasleena, adibidez—. Hala, langile gastuei dagokionez bakarrik, 1.173.035 euro gehiago gastatuko dituzte 2008an, 2007rekin konparatuta. Baina horrek ez du erran nahi askoz ere jende gehiago hartu du-

tenik; baizik eta lehen zenbatzen ez zituzten diru batzuk orain Enaik bere gain hartu dituela. Langile gastuen artean sartu dute, jakina, zuzendariaren soldata sortu berria: 58.842 euro.

Hainbat diru sail berri ekarriko omen ditu 2008ko aurrekontuak. Konparazio batera, euskararen garapenerako programan diru sail hauek sortu dituzte: euskararen sustatzea informazio eta komunikazio teknologietan (40.000 euro), eta euskarazko kultur ekimenen sustatzea (150.000).

Gastu arruntetan, hamahiru diru sail berri sortu dituzte. Adibidez: euskararen kanpainak (110.000); terminologia eta hizkuntzalaritza (30.000); ikerketa eta proiektu soziolinguistikoak (60.000); eta hezkuntza eta soziolinguistika argitalpenak (54.481).

Inbertsioen artean, berriz, ondo-koak sartu dituzte: euskararen mediateka, fonoteka eta biblioteka (60.000); Nafarroako toponimia (23.322); argitalpen funtsa (18.000); lokalak egokitzapena (500); informetrialia (5.000); eta ekipo informatikoak (10.000).

>> azpilikueta@berria.info



Carlos Perez-Nievas, Nafarroako Hezkuntza kontseilaria. IÑIGO URIZ / ARCAZMI PRESS

Carlos Perez-Nievasek erran du «gutxienez» hiru hautagai dituela

Mikel Aranburu Zudaire ez ezik, «gutxienez» bertze bi hautagai ere baditu Carlos Perez-Nievas Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariak Enaiko zuzendari izendatzeko. Halaxe erran zuen Perez-Nievasek atzo, Nafarroako Parlamentuan agerraldia egin eta gero. Abenduaren erdialde arte ez omen du zuzendariaren izena emanen, eta Miguel Sanz Nafarroako lehendakariarekin kontsultatuko du erabakia.

Perez-Nievasek onartu zuen Aranburu hautagaietako bat dela, baina bere izendapena egintzat jotzea zabaldu izanak «harritu» egin zuela gaineratu zuen. «Erabakia oraindik ez dago hartuta». Hainbat pertsonarekin elkarrizketatu nahi du Perez-Nievasek, eta gaia aurrekontuei buruzko eztabaidarako lotu.

Zuzendaria aurkitzeko lanetan izandako atzerapenarengatik egin dizkioten kritikak onartu zituen Perez-Nievasek, baina nabarmendu zuen lan horrek badiuela «zailtasunik». Erabakia «arinke-riaz» ez duela hartuko gaineratu zuen, «koalizio gobernu baina Nafarroakoa» eta erabakia Miguel Sanzekin eztabaidatu behar du. «Egoera hau dela-eta kezkatuta dauden pertsonekin harremanetan dago lehendakaria. Zuzendari proposamena nik eramanen dut, baina lehendakariari informatu behar diot».

Mikel Aranbururi buruz Perez-Nievasek erran zuen «inozente» jokatu duela. «Inozentekeria hori bakar badiote, ongi, baina, bertzeala, kontuan hartu behar du presio mediatico etengabea izan dena, eta horretan mugitzen jakin behar da».

Euskararen erabileraren kontrako oztopoak elkarlanean gainditzeko eskatu du Baztarrikak

Abenduaren 3an egingo den Euskararen Nazioarteko Eguneko ekitaldiak aurkeztu ditu

ERREDAKZIOA

Bilbo

Egunero euskaldunok gure hizkuntza erabiltzeko topatzen ditugun oztopoei aurre egiteko orduan elkarlanean jarduteko eskatu zuen Patxi Baztarrika Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako sailburuordeak. Azpimarratu zuenez, euskararen ezaguerari buruzko adierazleak orain urte batzuetakoak baino hobekiago dira. Baina hori ez da nahikoa, euskara jaki-

tea bakarrik ez, erabili ere egin behar delako. «Egunez egun euskaldunagoa den gizarte honetan, elkar hartuta gauditu behar ditugu ohitura eta joera zaharkituek euskararen eguneroko erabilerari jarritzen dizkioten traba eta oztopoak».

Baztarrikak esan zuenez, euskararen erabileraren sustapenean elkarlanean jardun behar dute herritarrek eta erakundeek. Euskararen erabileraren kontuari berebiziko garrantzia eman zion Baztarrikak: «Erabateko arreta eskatzen digun erronka erabakigarria» bezala definitu zuen. «Erabilerak baina, azken baten, edozein hizkuntzaren etorkizunaren giltzarria. Erabilerarako aukera eraginkorra delako, elkarrenganako errespetuarekin batera, hizkuntz

eta hiztunen arteko elkarbizitza bermatzea delako itun bakarra».

Datorren abenduaren 3an Euskararen Nazioarteko Eguna dela eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde publikoek —Eusko Jaurlaritza, hiru diputazioak eta Eudel udalerrien elkarteak— presatutako adierazpen instituzionalean jasotzen dira Baztarrikaren adierazpen horiek.

Atzo adierazpen instituzionala irakurri zuen Baztarrikak, abenduaren 3ko egunari begira antolatutako ekitaldiaren aurkezpena. Gasteizen izango dira aurtengo ekitaldi nagusiak. Besteak beste, arratsaldeko 19:30ean euskal kulturaren inguruko hainbat ekitaldi izango da Artium Museon. Ekitaldi horretan Ukan saria emango

du Juan Jose Ibarretxe Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) lehendakariak. Gizartearen euskara sustatzeko lana egindakoei ematen diete sari hori.

EUSKARAREN LEGEA GOGOAN. Aurtengo Euskararen Nazioarteko Egunak eta Eusko Legebiltzarrak orain 25 urte onartutako Euskararen Legeak bat egin dute ia denboran, eta Baztarrikak irakurritako adierazpen instituzionalean ezin falta izan ziren horri buruzko erreferentziak. «Urrats sendoa eman dira, adibidez, irakaskuntzan, euskara jakituria eta ezaguerarako hizkuntzatzat finkatuz. Sare zabal sarria da hedabideen alorrean euskara ehuntzen ari dena. Etengabe eguneratzen ari da euskara heldutako-

an ikasi edota landu behar dutenentzako eskaintza...».

Egoera horretarako bidea zehaztu duena Euskararen Legea da, Baztarrikaren hitzetan. «Lege hark garrantzia handieneko mugak jarri zuen euskararen normalkuntzarako bidean, herritarren hizkuntz eskubideak onartu eta haien zaintza eta sustapena aginte publikoei emanez». Hala, Euskararen Lege barik euskararen normalkuntza gauzatzea «ezinezkoa» izango litzatekeela nabarmendu zuen.

Euskararen Legearen baliorik sendoena testu hark orain mende laurdena lortutako adostasuna edo kontsentsua dela adierazi zuen. Horrez gain, kontsentsu haren oinarri zibilak birrintzeko ahalgintaren kontra egin zuen. «Elkarbizitza bestearen amore emate baldintzagabearen baitan jartzen dutenak dira, ikuspuntu hori aldatu ezean, euskararen normalkuntzaren aldeko lankidetzan tokirik ez dutenak».